

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 2.200 parte-hartzailek baino gehiagok esku hartuko dute naturako jardueren XVI. eskola-kanpainan

*3. eta 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako kanpaina honetan, ura eta naturari lotutako jarduerak daude, rafting, arroila-jaitsiera, piraguismoa eta abentura-parkea, besteak beste*

Martes, 06 de marzo de 2012

Nafarroako Foru Erkidegoko 40 ikastetxetako 2.224 parte-hartzaile nafarrek esku hartuko dute XVI. Naturako Jardueren Kanpainan. Kanpaina hori Bertizko Turismo Partzuergoak antolatzen du, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuarekin (INDAF) lankidetzan



Arroila-jaitsierarekin ikasleek eskalada-rapele teknikak ezagutu ditzaten nahi da.

Kanpaina 3. eta 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle nafarrentzat da, eta ura eta naturari lotutako jardueraz osatzen da, rafting, arroila-jaitsiera, piraguismoa eta abentura-parkeak, esate baterako.

Kanpaina martxoaren 5etik ekainaren 1a bitarte egingo da Baztan-Bidaso bailaran, hiru egun irauten du, astelehenetik asteazkenera edo asteazkenetik ostiralera eta, guztira, 36 pertsona hartzen ditu.

Kanpainan egiten diren jardueren artean, rafting-a da gazteei deigarrien egiten zaien jarduera. Errobi ibaiko ur-bizien zati batean burutzen da raft batean.

Ikasleek, gainera, arroila-jaitsiera egiten dute eta, hala, ikasleek eskalada-rapeleko teknikak ezagutu ditzaten nahi da. Azkenik, piragüismo edo hidrospeed egiten dute Bidasoa ibaian Bertizko Natura Parketik pasatzean, eta abentura-parkean zehar ibiltzen dira, hau da, NARBARTEN dagoen baso eder batean jarritako kableen eta plataformen zirkuitu batean

Jarduera guztiak inguruko kirol-zerbitzuetako enpresako esperientzia handiko gidarien laguntzarekin egiten dira. Kanpainaren antolakuntzak parte-hartzaileei beharrezko materiala ematen die jarduerak garatzeko, haien artean, neoprenozko trajea, txalekoa edo kaskoa.

Gazteak Baztango bailarako Gazteen Aterpetxean hartzen dute ostatu, Lekarozen. Aterpetxe hori Nafarroako Gazteria Institutuarena da eta Gazteen Aterpetxeen Espainiako Sarearen barnean dago.

Naturako Jardueren Kanpainak Baztan-Bidasoa bailarako natur eta kultur aberastasuna baliatu nahi ditu eta, horregatik, beste jarduera batzuk ere programatzen dira: Urdazubiko kobetara egindako bisita eta herri-kiroletan aritzen dira, besteak beste. Afaldu ondoren, egindako jardueren bideo bat proiektatzen da.

Kanpainak Iruñeko Monjardin eta Iberoko Isterria zentroetako ikasle ezinduak ere hartuko ditu beste urtebetez. Horretarako, behar diren begiraleak jarriko dira haien beharrei erantzuteko, bai eta egokitutako jardueretarako ere.

### **Aste Berdearen helburuak**

Bela eta Iraupen Eskiko kanpainetan bezala, "Aste Berde"-aren helburuak ikasleak naturari lotutako gutxiengoan kirolak ezagutzea da, ikasleen arteko bizikidetza bultzatzea eta naturarekiko begirunea sustatzea.

Kanpainaren prezioa, guztira, 150 eurotako da, eta kopuru horretatik 91 parte-hartzaileak ordaintzen du eta 59 euro Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du.

Kanpainaren aurrekontua, guztira, 344.334 eurokoa da, eta kopuru horretatik Nafarroako Gobernuak 147.000 euro jartzen du.